

7.- FUNTSEZKO BALIABIDEAK

• Enpresa baten baliabideak eguneroko eragiketak egiteko eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren elementu guztiak dira. Makinak, ordenagailu-programak, dirua edo pertsonak izan daitezke. Enpresa baten baliabideak plangintza-prozesuan, produkzioan eta produktuaren edo zerbitzuaren banaketan daude presente, eta ezinbestekoak dira eguneroko funtzioak gauzatzeko.

Gure jarduera aurrera eraman ahal izateko behar ditugun baliabideen artean langileak sartzen dira.

→ Enpresa buru bat, egin behar den horretan adibidea jartzen duelako, eta bere enpresan bizi diren arazoak gainbegiratzeaz, aurre egiteaz eta konpontzeaz arduratzen da, lankideekin batera. Era berean, enpresa burua izatearen beste erantzukizun garrantzitsu bat da harekin lan egingo duten langileak hautatzea, eta ziurtatzea bertako langileek beren jardueren zer?, nola? eta, batez ere, zertarako? ulertzen dutela.



→ Psikologoak ere behar ditugu hainbat gauzarako, adibidez gure langileak analizatzeko ea prest dauden gurekin lan egiteko, familiarekin hitz egiteko, etab.



→ Teknologia teknikari bat beharko dugu gure aplikazioa zeretik sortu ahal izateko, aplikazioan iragarkiak sartzeko, denborarekin gauza berriak sartzeko eta aplikazioaren aguneratzeak egiteko, aplikazioan sortu ahal diren arazoak konpondu ahal izateko, etab.



→ Kontablea transakzio ekonomiko, komertzial eta finantzario guztiak erregistratzeaz arduratzen da, konpainiak galerak edo irabaziak dituen jakiteaz gain, eragiketa guztien legezko erregistro bat egon dadin, enpresa ikuskapen batera deitzen badute.



→ Bezeroen arretarako pertsonak izango genituzke, eskaintzen dugunaren informazioa behar baldin badu, edozein galdera baldin badu erantzuna emateko, edo enpresaburuarekin edo beste langileekin elkartu nahi baldin bada hitzordua emateko.



→ Azkenik, baina ez garrantzi gutxienekoa, gure zainketako langileak. Langileen espezialitatearen arabera dagokion pertsonarekin hautatuko da, hau da, adineko pertsona batek, APSD edo TCAE den langile batekin egongo da, eta horrela adinekoekin, umeekin eta desgaitasunak duten pertsonekin. Berez, esan dugun bezala, titulazio bat dutenak izango ziren, hau da, TCAE (Erizain laguntzaileak), APSD (mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikaria), HH (Haur hezkuntza). Ala ere, psikologoarekin hitz egingo dute aritzeko gaitasuna duten edo ez ikusteko. Askotan pertsona batzuk ez dute behar titulu bat lana ondo egiteko eta gai direnak, ala ere pertsona hauek kasu espezifikotarako erabiliko ditugu, gaitasuna izaten dutelako. Hasieran aipatu dugun bezala, zaintzeko pertsonaren ezaugarriak jakin ondoren, jakin ahal izango dugu ze motatako zainketa pertsona jarriko diegun, batzutan emango diegu beraiek aukeratzeko ahalmena.



Funtsezko baliabideetan ere, langileez aparte beste elementu batzuk ditugu. Esan dugun bezala, proiektua aurrera eramateko aplikazioa sortzea beharko genuke (teknikariei esker), bertan dagoen materia gure proiektua delako. Baita ere, aplikazioaren aldi berean, web orri bat sortuko genuke.



Aplikazioa gure proiektua aurrera eraman ahal izateko eta web orria beharrezkoa den informazioa administratzeko. Nahiz eta beti galderaren bat sortzen zaizkigu, aplikazioan bertan sortzen diren ohiko galderak ateratzen dira, dena den, zure galdera ez baldin bada ateratzen, ez baldin baduzu ulertzen edo erantzuna ez baldin baduzu aurkitzen, gmail batez, dei batez edo bezeroaren arretaren atalaz baliatu arazorik gabe.



Web orriko atal batean aplikazioa deskargatzeko egongo zen, bai iOS-entzako bai Android-entzako.

